


Alberto Bargos Cucó

BURDINAZKO BIZITZAK

GORRITXOAK



BURDINAZKO BIZITZAK GORRITXOAK



Alberto Bargos Cucó

*Dolores “Pasionaria”ri eta bestelako biderik badagoela
erakutsi diguten beste hainbat emakumeri.
Eskerrik asko.*

1. ATALA

*Gure protagonistak non jaio ziren eta lehenengo urratsak
non eman zituzten agertzen duena...*

Isidora

Teilatuak burdin pilen gainean agertzen ziren. Munduaren amaiera bertan zegoela zirudien.

Zeru urdin eta mea gorrien artean zenbait etxetxo altxatzen ziren. Ez zen herrixka bakarra, baina bai meategien ondoan perretxikoak bezala sortu zirenen artean handienetakoa. Haren izena: La Elvira.

Barreiatutako¹ eraikuntzek kareharrien artean bilatzen zuten aterpea. Haizetik babestuta eta leku eguzkitsuetan zeuden denak, barrualde apalak berotzen ahal eta egur kopuru gutxiena gastatzeko. Haietako bakoitzean meatzari familiak hala moduz bizi ziren: haien aukera bakarra burdina erauztea, burdinarekin etengabe aritzea, burdina garraiatzea edo burdina garbitzea zen.

Haien bizitzetan mea preziatuaren inguruan biratzen zen dena. Horren truke soldata irrigarriak lortzen zituzten eta, belaunaldiz belaunaldi, ez zieten pobreziaren gurpiletik ihes egiteko aukerarik ematen.

Bat-batean, mendiko isiltasunean borda baten barrutik zetorren oihua aditu zen. Ez zen beldur-oihua, minak eragina baizik. Norbait erditzen ari zen. Gertaera nahiko ohikoa zen arren, bizi berria ongi etorria izaten zen beti eta oraingo honetan Juliana eta Antoniori egokitu zitzaien.

Gizonak hurbileko meategi batean lan egiten zuen, *La Buenan*. Zulo eta ebaki-guneetan bizitza jokoan jartzeaz gain sindikatu zereginetan ere aritzen zen eta horregatik langileburuek eta ugazabek arbuia² egiten zuten.

Emakumeak *La Elvirako* garbitokian lan egiten zuen, burdina aukeratzen. Zortzi ordu, eta sarritan gehiago, eskuak ur izoztuan sartuta. Ondoren mea plano makurraren ondoan uzten zen eta bertatik *Galdamesako* trenbidera garraiatzen zen, Nerbioiko itsasadarrean zain zeuden ontzietara eramateko.

Arratsalde hartan Juliana ez zegoen garbitokian. Bezpera arte lanean jardun zuen sorgorturik³, tenperatura apur bat atxikitzeko oinak pare bat adreilu beroren gainean jarrita. Beste emakumeek lagundu egiten zioten. Juliana lehertzeaz zegoen, erditzeko oso gutxi falta zitzaion-eta.

—Gaur ilargi aldaketa egongo da —gogorarazi zion berrogei urtetik gora izango ez zituen zaharrenetako batek— eta badakizue gu ere animaliak garela, nahiz eta gure bizimodua behiena edo behorrena bezain atsegin ez izan —eta jarraitu zuen— uste dut... uste dut Juliana, gaueko ilbetearekin barruan daramazun neska horrek irteteko gogo izango duela...

—Baliteke mutila izatea, ezta? —erantzun zuen laguntzaile legez lan egiten zuen hamar urte inguruko neskatila batek. Honen zeregina egunero berotzeko pizten zuten sutea elikatzea, upel txiki batean ura eramatea edo eskatzen zion langileari adreilu beroak eramatea zen.

–Ixo, zaude isilik –esan zuen zaharrenak–, ez duzu ikusten sabelaren forma? Julik neska ekarriko du, horretan ez dago zalantzarik.

Gainerako emakumeek baiezkoa egin zuten ziurtasun osoz, mea garbitzen eta aukeratzen jarraitzen zuten bitartean. Neskabila egur bila desagertu zen eta eguneko gainerako denboran isilik egon zen.

Gau hartan bertan, ilargia ortzian goreneko unean zegoenean, mina nabaritzen hasi zen. Erditzea laster hasiko zen.

Haurra ilargiaren indarraren eraginpean etorri zen mundu honetara. Aire izoztuaren lehenengo ahokadak arnastu zituen neguko lehen elur malutek beren oihal sarriaz mendi guztiak estaltzen zituzten aldi berean.

Hango esaera batek zioenez elurra egiten zuenean eguzkia hil egiten zen, inork ezin zuelako lanera joan. Trokak⁴, leherketen ondorioz sortutako zuloak, lubakiak... estali egiten ziren eta ezin atera zitekeen bide-zidorretatik istripurik izan gabe, baina Julianak ez zuen araua bete. Gau hartako lana ez zen garbitokian edo mehatze-ahoan izan: horrelakorik ez. Haren lan zaila sendo eta begiak bi eguzki bezain zabalik jaio zen neska erditzea izan zen. Bere bizitzako lehen segundotik, bere lehen arnasatik, haren begi handiek, zabal-zabalik, mundua ezagutu nahi zuten, bere inguruan zer gertatzen zen begiratu.

Haren negarra etxeko leihotxo bakarretik atera zen eta kinka hartan lagundu zioten hiru emakumeek ugazabei kexak egiteko ahots ona izango zuela esan zioten.

–Dena helduko da, dena helduko da, ez sartu presarik umeari, jaioberria da-eta –esan zuen nagusiak.

–Zerbait esateagatik zen –azaldu zuen beste batek.

–Bai, baina sendalariak diotenez, jaiotzetik bertatik nor zaren erakusten da, eta nik bete-betean sinesten dut hori –esan zuen hirugarrenak.

Umea negarrez hasi zen eta amaren bularretan jarri zuten. Berehala titiari heldu zion, kementsu, eta minutu batzuen buruan berriro lokartu zen.

Bien bitartean aita hurbileko etxeetara egur apur bat eskatzera joana zen, baina norbaitekin topo egin eta ospatzeko ardoren bat hartzen ari omen zen.

Ordu pare bat geroago agertu zen eta su behearen ondoan utzi zituen ekarritako haritz enbor batzuk. Auzoko batek ekarri zuen oilo salda apur bat berotu zuen eta bere emazteari eman zion.

–Juli, ondo portatu zara –xuxurlatu zion belarrira, musu bat emateko ezpainak hurbiltzen zizkion aldi berean.

–Oso luzea eta mingarria izango zela esaten zidaten, baina lehenengo aldia izateko arin eta ondo atera da –ondorioztatu zuen erditu berriak.